

AMAIERAKO TXOSTENA

2024KO MARTXOA

**“EPIDEMIOLOGIAKO ZERBITZU
ESPEZIALIZATUAK, GIPUZKOAKO INGURUMEN
GUNEA MARTXAN EGON DEN LEHENENGO
LAU URTEETAN (2020/04-HH-ZE)”**

4. ILDOA:

**ELIKAGAIETAN ETA LURZORUAN PCDD/F ETA
dl-PCB-EN EBALUAZIOA**

Jesús Ibarluzea Maurologoitia

Ikertzaile nagusia

**Ingurumen Epidemiologiako eta Haur Garapeneko Ikerketa Taldea
CIBERESP (Sareko Ikerketa Biomedikorako, Epidemiologiarako eta Osasun
Publikorako Zentroa, Carlos III.a Osasun Institutua)**

EDUKIAK

LABURPENA	1
1. SARRERA	2
1.1 Dioxinak eta furanoak (PCDD/F)	3
1.2. Bifenilo polikloratuak (PCB)	4
1.3. Baliokidetasun toxikoaren faktoreak (TEF) eta baliokidetasun toxikoaren balioak (TEQ)	5
1.4. Ingestio dietetiko onargarriak (TDI)	6
1.5. Gaur egungo legedia	7
2. HELBURUAK	9
3. METODOAK	10
3.1. Azterketa eremua	10
3.2. Laginen jasotzea	10
3.3. Analisi metodoa	11
3.3.1. Esne- eta arrautza-laginak	11
3.3.2. Lurzoru-laginak	13
3.4. Analisi estatistikoa	14
4. EMAITZAK	15
5. EZTABAIDA	35
6. ONDORIOAK	38
BIBLIOGRAFIA	39

ERANSKINAK

- 4.1. ERANSKINA. Esne-laginetan PCDDF eta dl-PCB-en laborategiko emaitzak pdf formatuan.
- 4.2. ERANSKINA. Esne-laginetan PCDDF eta dl-PCB-en laborategiko emaitzak Excel formatuan.
- 4.3. ERANSKINA. Arrautza-laginetan PCDDF eta dl-PCB-en laborategiko emaitzak pdf formatuan.
- 4.4. ERANSKINA. Arrautza-laginetan PCDDF eta dl-PCB-en laborategiko emaitzak Excel formatuan.
- 4.5. ERANSKINA. Lurzoru-laginetan PCDDF eta dl-PCB-en laborategiko emaitzak pdf formatuan.
- 4.6. ERANSKINA. Arrautza-laginetan PCDDF eta dl-PCB-en laborategiko emaitzak Excel formatuan.

TAULA-AURKIBIDEA

1. Taula: Batzordearen 2011ko abenduaren 2ko 1259/2011 (EB) araudia.	7
2. Taula. Europako Batzordeak elikagaietan gomendatutako dioxina, furano eta PCB kontzentrazioen ekintza-mailak.	7
3. Taula. Alemaniako gobernuak 1999ko uztailaren 12ko "Federal Soil Protection and Contaminated Sites Ordinance (BBodSchV)" ordenantzan eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan ezarritako arauak.	8
4. Taula. 1259/2011 Errege Dekretuak araututako muga gainditzen duten laginak.	16
5. Taula. 2021-2023 aldiaren bildutako esne-lagin guztien PCDD/F eta dl-PCB kide bakoitzaren detekzio-mugaren (LOD) azpiko mailak, kontzentrazioen (pg/g gantz) balio maximo, minimo, batezbesteko (BB) (%95KT), batezbesteko geometrikoak (MG) (%95KT) eta medianak (P25, P75), eta TEQ kontzentrazioen (pg WHO-TEQ/g gantza) batezbesteko (BB) (%95KT), batezbesteko geometrikoak (%95KT) eta medianak (P25, P75).	17
6. Taula. 2021-2023 aldiaren bildutako arrautza-lagin guztien PCDD/F eta dl-PCB kide bakoitzaren detekzio-mugaren (LOD) azpiko mailak, kontzentrazioen (pg/g gantz) balio maximo, minimo, batezbesteko (BB) (%95KT), batezbesteko geometrikoak (MG) (%95KT) eta medianak (P25, P75), eta TEQ kontzentrazioen (pg WHO-TEQ/g gantza) batezbesteko (BB) (%95KT), batezbesteko geometrikoak (%95KT) eta medianak (P25, P75).	18
7. Taula. 2021-2023 aldiaren bildutako lurzoru-lagin guztien PCDD/F eta dl-PCB kide bakoitzaren detekzio-mugaren (LOD) azpiko mailak, kontzentrazioen (pg/g ml) balio maximo, minimo, batezbesteko (BB) (%95KT), batezbesteko geometrikoak (MG) (%95KT) eta medianak (P25, P75), eta TEQ kontzentrazioen (pg I-TEQ/g ml PCDD/F-en kasuan eta pg WHO-TEQ/g ml dl-PCB-en kasurako) batezbesteko (BB) (%95KT), batezbesteko geometrikoak (%95KT) eta medianak (P25, P75).	19
8. Taula: PCDD/F baturaren balioak, dl-PCBak eta dioxina motako konposatu guztien batura (pg WHO-TEQ/g gantz) % 95eko konfiantza-tartearekin esne-lagin bakoitzerako.	20
9. Taula: PCDD/F baturaren balioak, dl-PCBak eta dioxina motako konposatu guztien batura (pg WHO-TEQ/g gantz) % 95eko konfiantza-tartearekin arrautza-lagin bakoitzerako.	21
10. Taula: PCDD/F baturaren balioak (pg I-TEQ/g ml) eta dl-PCBen baturaren balioak (pg WHO-TEQ/g ml) % 95eko konfiantza-tartearekin lurzoru-lagin bakoitzerako.	22
11. Taula: PCDD/F eta PCDD/F+dl-PCB kontzentrazioak 1259/2011 Errege Dekretuan ezarritako muga gainditu duten elikagaien laginen ehunekoa (% N) eta Europako Batzordeak esne- eta arrautza-laginentzat gomendatutako ekintza-maila. Era berean, Alemaniako Gobernuak nekazaritza lurretarako gomendatutako PCDD/F kontzentrazioaren muga gainditu duen lurzoruaren laginen ehunekoa, eta 9/2005 Errege Dekretuan hiri- eta industria-erabilerarako ez diren lurzoruarentarako PCBen kontzentrazioaren gehieneko muga gainditu duen lurzoruaren laginen ehunekoa.	23
12. Taula: Esne-laginen PCDD/F eta dl-PCBen balio maximoak, minimoak, batezbestekoak (%95KT) eta batezbesteko geometrikoak (%95KT) eraginpeko eremuan eta kontrol-eremuan.	24
13. Taula: Arrautza-laginen PCDD/F eta dl-PCBen balio maximoak, minimoak, batezbestekoak (%95KT) eta batezbesteko geometrikoak (%95KT) eraginpeko eremuan eta kontrol-eremuan.	25
14. Taula: Lurzoru-laginen PCDD/F (pg I-TEQ/g ml) eta dl-PCBen (pg WHO-TEQ/g ml) balio maximoak, minimoak, batezbestekoak (%95KT) eta batezbesteko geometrikoak (%95KT) eraginpeko eremuan eta kontrol-eremuan.	26

15. Taula: GLM analisiaren emaitzak, azterketa-eremua eta urtea faktore finko gisa eta kutsatzaileen kontzentrazioak lagin-mota bakoitzerako (esnea, arrautzak, lurzorua) erantzun-aldagai gisa erabilia. Letra lodiz idatzitako balioek esanahi estatistikoa adierazten dute. 34

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia. PCDD eta PCDF-en egitura kimikoa.....	3
2. Irudia. PCBen egitura kimiko orokorra.....	4
3. Irudia: Azterketa-eremuaren mapa, non geolokalizazio bidez kokatzen baitira azterketan zehar jasotako esne-, arrautza- eta lurzoru-laginak. GIGEBIren eraginpean dagoen eremuak, laranjaz, 15 km-ko erradioa du.	10
4. Irudia: Esne-laginetan dioxinen eta furanoen kide bakoitzak PCDD/F kontzentrazioen (goian) eta TEQen (behean) baturari egiten dion ekarpena, ehunekotan. Eraginpeko eremua eta kontrol-eremua konparatzen dira.....	28
5. Irudia: Esne-laginetan dl-PCB kide bakoitzak dl-PCB kontzentrazioen (goian) eta TEQen (behean) baturari egiten dion ekarpena, ehunekotan. Eraginpeko eremua eta kontrol-eremua konparatzen dira.	29
6. Irudia: Arrautza-laginetan dioxinen eta furanoen kide bakoitzak PCDD/F kontzentrazioen (goian) eta TEQen (behean) baturari egiten dion ekarpena, ehunekotan. Eraginpeko eremua eta kontrol-eremua konparatzen dira.	30
7. Irudia: Arrautza-laginetan dl-PCB kide bakoitzak dl-PCB kontzentrazioen (goian) eta TEQen (behean) baturari egiten dion ekarpena, ehunekotan. Eraginpeko eremua eta kontrol-eremua konparatzen dira.	31
8. Irudia: Lurzoru-laginetan dioxinen eta furanoen kide bakoitzak PCDD/F kontzentrazioen (goian) eta TEQen (behean) baturari egiten dion ekarpena, ehunekotan. Eraginpeko eremua eta kontrol-eremua konparatzen dira.	32
9. Irudia: Lurzoru-laginetan dl-PCB kide bakoitzak dl-PCB kontzentrazioen (goian) eta TEQen (behean) baturari egiten dion ekarpena, ehunekotan. Eraginpeko eremua eta kontrol-eremua konparatzen dira.	33

LABURPENA

Ikerketa-lerro honen helburua da tokian ekoizitako elikagaien laginetan (arrautzak eta esnea) eta lurzoruan PCDD/F eta dl-PCB mailak deskribatzea, eraginpean dagoen eremuan eta kontrol eremuan, 2021-2023 aldian, Gipuzkoako Ingurumen Gunearen parte den Energia Balorizazioko Instalazioa (GIGEBI) martxan jarri ondoren. PCDD/F eta dl-PCB mailak neurtu dira 55 esne-laginetan, 50 arrautza-laginetan eta 48 lurzoru-laginetan. Esnean PCDD/F eta dl-PCB mailak 0.46 (0.45; 0,48) pg WHO-TEQ/g gantz eta 0.42 (0.36; 0.49) pg WHO-TEQ/g gantz izan ziren, hurrenez hurren. Arrautzetan PCDD/F eta dl-PCB mailak 0.33 (0.29; 0.38) pg/g gantz eta 0.13 (0.10; 0.17) pg/g gantz izan ziren. Lurzoruan, PCDD/F eta dl-PCB mailak 1.60 (1.30; 1.96) pg/g materia lehorra eta 0.45 (0.34; 0.59) pg/g materia lehorra izan ziren. Emaidza guztiak 1259/2011 Araudian elikagaien dioxina, dioxinen antzeko PCB eta dioxinen antzekoak ez diren PCBen gehieneko edukiei ezarritako muga baino txikiagoak izan ziren, 2 ekoizleren 4 lagin izan ezik (bi esne-lagin eta bi arrautza-lagin). Era berean, lurzoruaren emaitza guztiak 9/2005 Errege Dekretuan hiri- eta industria-erabilerarako ez diren lurzoruetarako PCBen kontzentrazioaren gehieneko muga baino txikiagoak izan ziren, baita Alemaniako Gobernuak gomendatutako PCDD/F kontzentrazioaren muga baino txikiagoak. Eremuen arteko PCDD/F eta dl-PCB mailen konparaketak zehaztu zuen, bi eremuetako esnearen eta lurzoruaren kontzentrazioak antzekoak ziren; arrautzen kontzentrazioak, berriz, handixeagoak ziren eraginpeko eremuan. Era berean, goranzko joera ikusi zen PCDD/F mailan denboran zehar.

1. SARRERA

Populazioa PCDD/F eta dl-PCBen eraginpean egoteko iturri nagusia dieta da, bereziki, gantz asko dituzten elikagaiak. Iraunkortasun handia, egonkortasun kimikoa eta liposolubilitatea kontuan hartuta, PCDD/F eta dl-PCBak elikadura-kateetan metatzeko joera daukate, batez ere, gantz asko duten elikagaietan, arrautzetan edo esnean besteak beste (González & Domingo, 2021). Errekuntza-prozesuetan sortutako kutsatzaile horiek (Shibamoto et al., 2007) haizearen bitartez garraiatzen dira atmosferan zehar distantzia luzeetara, ondoren lurlean edo itsas eremuetan metatzen dira eta bertako partikula eta sedimentuei itsasten zaizkie, azkenik ekosistemetan eta elikadura-kateetan biometatuz (Hutzinger et al. 1985).

Kutsatzaile horiek gizakiarentzat duten toxikotasuna (Gonzalez et al. 2018; Weitekamp et al. 2021) eta ingurumenean duten presentzia iraunkorra dela eta (Gworek et al. 2013), azken hamarkadetan hainbat ikerketa egin dira substantzia horiekiko giza esposizioaren maila ezagutzeko (Cole-Hunter et al., 2020; Domingo et al., 2020; Tait et al., 2020). Gizakien esposizio-maila ezagutzeko egindako azterketak zuzenean egin dira PCDD/F eta dl-PCB mailak neurtuz odola bezalako matrize biologikoetan (Marqués & Domingo, 2019), ama-esnean (Schumacher et al., 2019; Zhang et al., 2023) eta ehun adiposoan (García et al., 2021), eta zeharka, esposizio-maila kalkulatu PCDD/F eta dl-PCB kontzentrazioetan oinarrituta airean, uretan, elikagaietan eta elikagaien kontsumo-estandarretan, eta arnastutako airearen bolumenean.


Lan eremuan PCDD/F eta dl-PCBen eraginpean ez dauden biztanleek organismoan nolabaiteko oinarrizko dioxina kontzentrazioa dute, gorputz-karga izenekoa, konposatu hauek ingurumenean eta elika-kateetan orokorrean egotearen ondoriozko esposizioaren eraginez. Karga horren % 90 dietaren bidezko esposiziotik dator eta gainerako % 10a arnastutako airearen eta larruzalaren bidez (Liem et al., 2000). Oro har, ez dago ebidentziarik gaur egungo hondoko esposizioak giza osasunean ondorioak dituenik (EFSA, 2018).

2010-2016 aldian, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzak (EFSA) berrikusi egin zituen elikagaietan eta pentsuetan PCDD/F kontzentrazioak eta dioxinaren antzeko konposatuak deskribatzen zituzten azterlanak, eta erreferentzia-tarteak ezarri zituen esnean eta esnekietan, animalia-koipean eta arrautzetan (EFSA, 2018). Herrialde gehienetan, behi-esnean eta oilo-arrautzetan PCDD/F eta dl-PCB mailak European araututako mugen azpitik zeuden. PCDD/F eta dl-PCB mailak ezarritako mugaren gainetik zeuden kasuetan, kutsadura-iturri nagusia lurzorua zen, eta atmosferako jalkitzea zen kutsadura-iturri nagusia. Bestalde, behi-esnean eta oilo-arrautzetan ez da denboran zeharreko aldaketarik hauteman PCDD/F eta dl-PCBen mailan, kutsatzaile horiek atmosferara isurtzeari buruz ezarritako araudiak eta azken hamarkadetan

araututako kontzentrazio-mugak gorabehera. Aipatzekoa da azterlan gutxik aztertzen dutela dioxinen maila tokian ekoiztako elikagaietan eta lurzoruan.

1.1 Dioxinak eta furanoak (PCDD/F)

Dibenzo-p-dioxina polikloratuak (PCDD) eta dibenzofuranoak (PCDF) konposatu trizikliko lauak dira, eta "dioxinak eta furanoak" (PCDD/Fs) deitzen dira. Konposatu horiek konposatu organiko iraunkorren (COP) taldean sartuta daude. Bere egitura kimikoa bi eraztun benzentriko dira eta eraztun horiei lotuta kloro-atomoak dituzte (1. irudia). Kloro-atomoen kopuruak eta eraztunetan duten posizioak 75 PCDD eta 135 PCDF konposatu desberdin osatzen dituzte, kideak deituak. Horien artean, dioxinen zazpi kide bereziki toxikoak dira: 2,3,7,8-TCDD; 1,2,3,7,8-PeCDD; 1,2,3,4,7,8-HxCDD; 1,2,3,6,7,8-HxCDD; 1,2,3,7,8,9-HxCDD; 1,2,3,4,6,7,8-HpCDD eta OCDD. Era berean, hamar furano kide dioxinen antzeko propietateak dituzte, eta beraz, bereziki toxikotzat jotzen dira: 2,3,7,8-TCDF; 1,2,3,3,7,8-PeCDF; 2,3,4,7,8-PeCDF; 1,2,3,4,7,8-HxCDF; 1,2,3,3,6,7,8-HxCDF; 2,3,4,6,7,9-HxCDF; 1,2,3,4,4,6,7,8-HpCDF; 1,2,3,4,7,8,9-HpCDF eta OCDF.




1. Irudia. PCDD eta PCDF-en egitura kimikoa.

Dioxinak eta furanoak, batez ere, errekuntzaren bidez sortzen dira, hala nola eskala handiko hondakinen errausketan (Olie et al., 1977), erregaien erreketan (Jin et al., 2023), sute naturaletan edo kontrolik gabekoetan (Hoogenboom et al., 2012) eta jarduera bolkanikoetan. Beste industria-jarduera batzuek ere konposatu horiek ingurumenera askatzea eragiten dute, hala nola papera ekoiztea (PNUMA, 2007), zura PCPrekin tratatzea (Harnly et al., 2000), PCB hondakinak erretzea (Turrio-Baldassarri et al., 2009), metalak prozesatzea eta elektrolisi kloroalkalinoko prozesuak egitea (Svensson et al., 1993).

Konposatu horiek sortu ondoren, haizeak garraiatzen ditu eta lurzoruan sedimentatzen dira, jalkitze atmosferikoa deitzen den fenomenoaren bidez. Temperatura altuetan egonkortasun handia dutenez, degradatzeko zailak dira, eta horregatik ingurumenean konposatu iraunkortzat jotzen dira, 30 eta 100 urte bitarteko batez besteko bizitzarekin (Gworek et al., 2013). Dioxina eta furanoen ezaugarri horrek, oso lipodisolagarriak eta hidrofoboak izatearekin batera, izaki bizidunetan metatzeko gaitasun handia izatea eragiten du (biometaketa), batez ere gantz-ehunetan, eta ondorioz, elika-katean metatzen dira.

1.2. Bifenilo polikloratuak (PCB)

Bifenilo polikloratuak (PCBak) konposatu organokloratuak dira, eta horiek ere COPen taldean sartzen dira. Egitura kimikoa bentzenozko bi eraztunek osatzen dute, eta horien hidrogeno-atomoak kloro-atomoz ordezkatuak egon ahal dira (2. Irudia). Egiturazko ezaugarrien eta efektu toxikologikoen arabera, PCBak bi taldetan banatzen dira. Dioxinen antzeko PCBak (dl-PCB, ingelesezko siglengatik), dioxinen antzeko propietate toxikologikoak dituztelako deitzen dira horrela. dl-PCBek gutxienez lau kloro-atomo dituzte eta 12 kide daude: PCB-77; PCB-81; PCB-126; PCB-169; PCB-105; PCB-114; PCB-118; PCB-123; PCB-156; PCB-157; PCB-167 eta PCB-189. PCBren gainerako 197 kideei "dioxinen antzekoak ez diren PCB" (PCB NDL) esaten zaie, eta ez dute toxikotasun mota hori; beraz, profil toxikologiko desberdina dute.



2. Irudia. PCBen egitura kimiko orokorra

PCBak edo bifenilo polikloratuak konbustio-prozesu osatugabeetan ere askatzen dira, kloroa dagoenean. Bere propietate fisiko-kimikoak direla eta (sukoitasun eza, egonkortasun kimikoa, irakite-puntu altua, eroankortasun termiko baxua, konstante dielektriko altua), konposatu hauek industrian erabilera askotarako erabili dira, hala nola isolatzaile dielektrikoak, sugarraren atzeratzaileak, itsasgarrietan, tindagaietan, pinturetan, pestizidetan eta estalduretako materialetan (Erickson, 1997). Gaur egun, herrialde gehienetan debekatuta dago horiek ekoiztea, ingurunean duten iraunkortasun handia dela eta. Hala ere, gaur egun PCBak

ingurumenera isurtzen jarraitzen da, PCBak osagarri dituzten produktuak erabiltzeagatik, konposatu horiekin kutsatutako lekuetan gertatzen diren isurketengatik eta errekuntza-prozesuengatik (EFSA, 2018).

1.3. Baliokidetasun toxikoaren faktoreak (TEF) eta baliokidetasun toxikoaren balioak (TEQ)

Dioxina-nahasketen toxikotasun osoa ebaluatzeko, “Baliokidetasun toxikoaren faktore” deiturikoak ezarri dira (TEF). Definizioz, 2,3,7,8-TCDD kidea da toxikoena, eta TEFaren 1 balioa esleitzen zaio; gainerako 16 PCDD/F eta 12 dl-PCB kideei 0,00003 eta 1 arteko TEF balioak esleitzen zaizkie (1.1 eranskina). TEFaren balioa PCDD/F eta dl-PCB kideen toxikotasun-mailaren estimazio bat da, kiderik toxikoenari dagokionez (2,3,7,8-TCDD). Kideen nahasketa baten TEQ balio osoa kalkulatzeko, kide bakoitzaren kontzentrazioa biderkatu egiten da TEF balioarekin, eta, ondoren, emaitza guztiak batzen dira.

Dioxinen toxikotasun globala baliokide toxikoetan (TEQ) adierazten da. Balio hori kalkulatzeko, kide bakoitzaren TEFa ($TEF_{i,j}$) nahasketan duen kontzentrazioaz ($C_{i,j}$) biderkatzen da, eta kide guztien batukaria egiten da formula honen arabera:

$$TEQ = \sum (TEF_{i,PCDD} \cdot C_{i,PCDD} + TEF_{j,PCDF} \cdot C_{j,PCDF} + \dots)$$

TEQ kontzeptuak aukera ematen du kideen nahasketen toxikotasuna konparatzeko AhR (aryl hidrocarbon ingelesez) zelula-hartzaileekiko elkarreaginaren ondorio kaltegarrien kasuan, eta ez ditu kontuan hartzen dioxinen konposatuek edo dioxinen antzekoek eragin ditzaketen beste efektu toxiko batzuk. Gaur egun, baliokidetasun toxikoko hiru faktore daude (TEF). I-TEQak 1989an sortu zituen Ipar Atlantikoko Itunari buruzko Erakundeak (NATO) (NAT/CCMS, 1988), eta gerora eguneratu egin ziren. Aldiz, WHO-TEQak Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) sortu zituen 1998an (Van den Berg et al., 1998) eta, ondoren, 2005ean eguneratu ziren (Van den Berg et al., 2006), horrela, WHO-TEQ1998 eta WHO-TEQ2005ak aurkituz. I-TEQ balioak WHO-TEQ balioak baino % 10 handiagoak dira. TEQen emaitzak, kalkulatzeko erabili den TEF balioaren arabera izango dira. Horrela, erabilitako TEF balioaren arabera, dioxinen kontzentrazioak I-TEQen edo WHO-TEQ₁₉₉₈ eta WHO-TEQ₂₀₀₅etan adieraz daitezke.

1.4. Ingestio dietetiko onargarriak (TDI)

Lehen esan bezala, gizakiarentzat oso toxikoak diren dioxina motako konposatuak ingurumenean erraz aurkitu daitezke eta giza gorputzera iristeko esposizio bide nagusia dietaren bidezkoa da. Hori dela eta, konposatu horien ingestio dietetiko onargarriak (TDI, ingelesezko adieraren arabera) ezarri dira. TDI airean, elikagaietan eta ur edangarrian dagoen substantzia baten kantitatearen estimazio bat da, hain zuzen ere, osasunean ageriko arriskurik gabe bizitzan zehar har daitekeen substantzia horren kantitatea zehazten du. TDIak laborategiko toxikotasun-datuetatik abiatuta kalkulatzen dira, eta datu horiei ziurgabetasun-faktore batzuk aplikatzen zaizkie. Ingestio horiek aldizka aldatu dira datu epidemiologiko eta toxikologiko berriak sortu ahala, bereziki eragin endokrinoei eta neurogarapenari dagokien azterketak kontutan hartuz. 1990ean, giza eta esperimentazioko animalien datu zinetikoak erabiliz eta kontuan hartuta gibleko toxikotasuna, ugalketa-ondorioak eta immunotoxikotasuna, Osasunaren munduko erakundeak (OME) TCDDarentzat 10 pg/(kg gorputz-pisuko (pc) eta eguneko) TDI bat ezarri zuen. 1998an aldatu egin zen eta 1 eta 4 pg WHO-TEQ/ (kg pc* egun) arteko tartea ezarri zen (Van Leeuwen et al. 2000). Bestalde, 2001ean, Erresuma Batuko elikagaietako, kontsumo-produktuetako eta ingurumeneko substantzia kimikoen toxikotasunaren batzordeak 2 pg WHO-TEQ/(kg pc* egun) TDI bat proposatu zuen, eta Europako Batzordeko Elikagaien Batzorde Zientifikoak (SCF), berriz, 14 pg WHO-TEQ/(kg pc* aste) asteko ingestio onargarri bat (TWI) ezarri zuen. 2011ko ekainean, elikagai-gehigarriei buruzko adituen batzorde bateratuak (JECFA) hileko behin-behineko eta hilabeteko ingestio dietetiko onargarria (PTMI) 70 pg WHO-TEQ/(kg pc* hilabete) ezarri zuen. **Azken balio hori erabiltzen du gaur egun Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzak (EFSA, 2018)**. TDIa gaintitzen duten mailekiko epe laburreko esposizioak ez du zertan kezkatzeko modukoa izan, baldin eta gizabanakoaren batez besteko ingestioak, denbora luzean, ezarritako maila gaintitzen ez badu. TDI bat ezartzean aplikatu ohi diren ziurgabetasun-faktore handiek balio dute epe laburretan TDI gaintitzen duen esposizioak osasunerako inolako eragin kaltegarriarik ez duela ziurtatzeko.

Konposatu horiek lipidoetan disolbagarriak dira, ondorioz, animalia-jatorriko elikagaien ingestioak sustatzen du gizakiengan gorputzeko karga igotzea. "Arrainak eta itsaskiak" dira ekarpen handiena egiten duten elikagaiak (% 30-75), ondoren, "Haragia eta haragi-produktuak" (% 9-34) eta "Esnea eta esnekiak" (% 7-25). Horregatik, ingestio dietetiko onargarria ez gaintitzeko, elikagai bakoitzak izan dezakeen dioxinen gehieneko edukia legez arautzen da. Aitzitik, landare-jatorriko elikagaiak, oro har, PCDD/F eta dl-PCB eduki txikiak izaten dituzte (EFSA, 2018).

1.5. Gaur egungo legedia

Elikagaietan dioxinen edukiari buruz indarrean dagoen legeria Batzordearen 2011ko abenduaren 2ko 1259/2011 (EB) araudiak arautzen du. Araudi horrek 1881/2006 (EE) Araudia aldatzen du elikagaietan dioxinen, dioxinen antzeko PCBen eta dioxinen antzekoak ez diren PCBen gehieneko edukiei dagokienez. Hauek dira araudiak ezarritako gehieneko edukiak (1. Taula):

1. Taula: Batzordearen 2011ko abenduaren 2ko 1259/2011 (EB) araudia.

Esnea			
	PCDD/F	PCDD/F + dl-PCB	Unitateak
Eduki maximoa	2,5	5,5	pg WHO-TEQ2005/g gantz
Arrautzak			
	PCDD/F	PCDD/F + dl-PCB	Unitateak
Eduki maximoa	2,5	5	pg WHO-TEQ2005/g gantz

Era berean, 2013/711/EU Gomendioak "ekintza-mailak" ezartzen ditu zenbait elikagaitan. Horiek kutsadura mugak dira, eta eragile ekonomikoentzako alerta azkarrerako eta kontrol ofizialerako tresna gisa erabiltzen dira, balio onargarriak baino dioxina-kontzentrazio handiagoz ohartarazteko. Beraz, ekintza-mailak gainditzeak kutsadura-iturri hurbila dagoela adierazteko balio du, baina, gehieneko mailak ez bezala, ez da elikagaia merkatutik kendu behar (ez da legedia ez betetzea) (2. Taula).

2. Taula. Europako Batzordeak elikagaietan gomendatutako dioxina, furano eta PCB kontzentrazioen ekintza-mailak.

Elikagaia	PCDD/F-rako gomendatutako ekintza-maila	dl-PCB-rako gomendatutako ekintza-maila
Esnea	1.75 pg WHO-TEQ/g grasa	2.00 pg WHO-TEQ/g grasa
Arrautzak	1.75 pg WHO-TEQ/g grasa	1.75 pg WHO-TEQ/g grasa

Lurzorua kasuan, ez dago nekazaritza-erabilerako lurzoruetan dioxinen, furanoen eta dioxina antzeko eta ez antzeko PCBen gehieneko edukia zehazten duen adostutako araudirik. Hala ere, erreferentzia gisa hartu da Alemaniako gobernuak gomendatutako (Federal Soil Protection and Contaminated Sites Ordinance (BBodSchV)) nekazaritzaz bestelako erabilerarako ezartzen duen PCDD/F kontzentrazioen muga, bai eta 9/2005 Errege Dekretuan hiri- eta industria-erabilerarako ez diren lurzoruetarako PCBen kontzentrazioaren gehieneko muga ere. Bi arauk ezarritako kontzentrazio mugak honako hauek dira (3. Taula):

3. Taula. Alemaniako gobernuak 1999ko uztailaren 12ko "Federal Soil Protection and Contaminated Sites Ordinance (BBodSchV)" ordenantzan eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan ezarritako arauak.

Lurzorua			
	Lurzoru mota	Atalase-balioa	Araudia
PCDD/F	Nekazaritzaz bestelakoa	5 pg I-TEQ/g materia lehorra	BBodSchV
PCB	Erabilera ez-industrialia eta ez-hiritarra	0,01 mg/kg	9/2005 Errege dekretua


2. HELBURUAK

Azter-ildo honen helburua tokian ekoizitako elikagaien laginetan (arrautzak eta esnea) PCDD/F eta dl-PCB mailak deskribatzea, Gipuzkoako Ingurumen Gunearen parte den Energia Balorizazioko Instalaziotik (GIGEBI) gertu eta urrun dagoen eremuko lurzoruan, eta GIGEBI martxan jarri aurretik eta abian jarri ondoren izan duten bilakaera aztertzea izan da.

3. METODOAK

3.1. Azterketa eremua

Azterlana Gipuzkoako probintziako bi eremutan egin zen, horietako bat GIGEBI-tik gertu edo eraginpean zegoena, eta beste bat GIGEBIaren eraginik gabeko kontrol- edo erreferentzia-eremua (3. Irudia).



3. Irudia: Azterketa-eremuaren mapa, non geolokalizazio bidez kokatzen baitira azterketan zehar jasotako esne-, arrautza- eta lurzoru-laginak. GIGEBIren eraginpean dagoen eremuak, laranja, 15 km-ko erradioa du.

3.2. Laginen jasotzea

Hasieran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Abeltzaintza Departamentuak emandako azterketa-eremuan dauden esne- eta arrautza-ekoizleen zerrendatik abiatuta jaso ziren laginak. Tokiko ekoizleen arrautza- eta esne-laginak lortzeko zailtasunak izan zirenez zerrenda horretatik abiatuta, ikerketarako esne-laginak eta arrautza-laginak bi kooperatibekin batera jaso ziren. Alde batetik, esnea bildu, eraldatu, biltegiratu eta garraiatzeko Euskadin, Nafarroan, Burgosen eta Errioxan kokatutako abeltzaintza-ustategiak biltzen dituen kooperatibarekin, eta bestetik aske dauden oiloak hazten eta zaintzen dituzten baserritarrak biltzen dituen kooperatibarekin. Horrek nabarmen erraztu zuen esnea eta arrautzak biltzea eta azterlanaren eremuko laginen adierazgarritasuna handitu zuen.

Beraz, 2021-2023 aldian 153 lagin bildu ziren guztira (55 esne-lagin, 50 arrautza-lagin eta 48 lurzoru-lagin). Azterlanean zehar, 51 arrautza-lagin jaso ziren, baina 2022ko laginetako batek balio altuak eman zituen, beharrezkoa ikusiz ekoizle bereko arrautza-lagin berri bat jasotzea emaitzak berresteko. 2023ko kanpainan ekoizle beraren arrautzak berriro lagintzea ezinezkoa zela ikusita, eta GFArekin kontsultatu ondoren, arrautzen lagin horren emaitzak azken emaitzetan ez sartzea erabaki zen, arrautza lagin bat gutxiagorekin geratuz.

Jasotako laginen kokalekuak 3. irudian ikus daitezke.

Esne-laginen kasuan, litro bat esne gordin biltzen zen alde zurretik esterilizatutako laborategiko botila batean. Arrautzen kasuan, dozena bat arrautza biltzen ziren eta irabiatu eta homogeneizatu ondoren, alde zurretik esterilizatutako botiletan ere gordetzen ziren. Lurzoruaren kasuan, aurretik belarra kendu ondoren, azaleraren lehen zentimetroetatik 500 gramo lur biltzen ziren, 100 gr-ko 5 azpilagilaginez osatua. Laginak itxiera hermetikoa zuten plastikozko poltsetan biltzen ziren. Lagin guztiak izoztu egiten ziren -20°C-tan, ondoren laborategira bidaltzeko.

3.3. Analisi metodoa

Laginak Ingurumen Diagnostikoaren eta Uraren Azterketen Institutuan (IDAEA-CSIC) aztertu ziren. Analisi kimikoak ENACek egiaztatutako laborategiko prozedurari jarraituz egin ziren.

3.3.1. Esne- eta arrautza-laginak

Tokian ekoizitako elikagaien laginak (esnea eta arrautzak) aztertzeko, PA-04 prozedura erabili da, EBko 2017/644 Araudiaren III. eranskinaren arabeko barne-metodoa. Prozedurak bost fase ditu:

a) Aurretratamendua eta esne-laginen erauzketa

2 L-ko dekantazio-inbutu batean 200 ml lagin jarri ziren, 2 g sodio oxalato gehitu ziren, lagina astindu zen, beste 200 ml MeOH gehitu ziren eta inbutua berriro astindu zen. Horrela, erauzketa aurretik aurretratamendu bat egin zen matrizea desnaturalizatzen.

¹³C-z markatutako PCDD/F eta dl-PCB ereduak gehitu ziren, analitoak diluzio isotopikoaren bidez kuantifikatzeko, eter dietilikoaren 200 ml gehitu ziren, astindu egin zen, beste 200 ml petrolio-eter gehitu ziren eta inbutua berriro astindu zen.

Fase urtsua eta organikoa grabitatearen bidez bereizten utzi ziren. Fase urtsua (beheko fasea) alde batetik jaso zen eta fase organikoa bestetik. Dekantazio-inbutuan bi aldiz errepikatu zen fase urtsuaren erauzketa likido-likidoa, 200 ml eter dietiliko gehiagorekin eta 200 ml petrolio eter gehiagorekin aldi bakoitzean.

Azkenik, fase organiko guztiak batera bildu ziren, eta estraktuaren guztizkoa erreboiloan kontzentratu zen lehortu arte, grabimetria bidez gantza zehazteko. Horretarako, berogailuan 105 ° C-tan lehortu ondoren geratzen den hondakina pisatu zen gau oso batez.

b) Aurretratamendua eta arrautza-laginen erauzketa

Erauzketaren aurretik, lagin bakoitza liofilizatu zen. Lagin lehorraren kantitate jakin bat hartu zen eta ¹³C bidez markatutako PCDD/F eta dl-PCB patrioiak gehitu ziren analitoak diluzio isotopiko bidez kuantifikatzeko. 24 orduz Soxhlet bidez erauzi zen, ziklohexanoa: tolueno (1:1) nahasketa batekin.

Estraktua lurrungailuan kontzentratu zen lehortu arte, grabimetria bidezko gantza zehazteko. Horretarako, berogailuan 105 ° C-tan gau oso batez lehortu ondoren geratzen den hondakina pisatu zen.

c) Estraktuaren garbiketa

Hondakin lehorra hexanoan disolbatu zen eta geruza anitzeko silizezko zutabe ireki batean (azidoa, neutroa eta oinarrizkoa) garbitu zen. Azkenik, zutabea grabitate bidez eluzionatu zen.

d) Estraktuaren zatikapena

Silize-zutabetik datorren hexanozko estraktua berriro lurrungailuan kontzentratu zen, eta tandemeko zutabe-sistema batean zatitu zen. Sistema hori tamaina txikiagoko geruza anitzeko silizezko zutabe batek osatzen du, oinarrizko aluminazko zutabe bati akoplatuta, grabitatez eluzionatuz. Analitoak bi zatitan zatikatu ziren, hexano-nahasketan: diklorometanoa proportzio desberdinetan; lehenengoan, polartasun txikiagokoan, dl-PCBak berreskuratu ziren; polarreanean, berriz, PCDD/Fak berreskuratu ziren. Azken zati hori berriro kontzentratu zen karbonozko-zutabe batean garbiketa gehigarri bat egiteko, PCDD/Fak toluenoan eluzidatuz.

e) Bereizmen handiko masa-espektrometriari (GC-HRMS) akoplatutako gasen kromatografia bidezko analisia

Lortutako bi zatiak birkontzentratu egin ziren, lehenengo lurrungailuan kasu bakoitzari zegokion estraktua bide koniko batera eramateko, eta ondoren, lehortu egin zen N₂ korrante baten azpian. Azkenik, ¹³C-z markatutako patrioiak gehitu ziren, nonanoan, erauzketaren aurretik gehitutako patrioen berreskurapena ebaluatzeko.

Estraktuak GC-HRMS bidez aztertu ziren, kalibrazio-zuzen egokiak erabiliz eta eskatutako baldintza analitikoak betetzeko baldintza kromatografiko eta espektrometrikoko egokietan. Kuantifikazioa diluzio isotopikoaren metodoaren arabera egin zen.

3.3.2. Lurzoru-laginak

Lurzoru-laginak aztertzeko, PA-01 prozedura erabili da, PCDD/F-erako EPA-1613an oinarritutako barne-metodoa, jarraian deskribatutako hiru fase dituen:

a) Aurretratamendua eta lurzoru-laginen erauzketa

Erauzketa aurretik, lagin bakoitza giro-tenperaturan lehortu eta homogeneizatu zen. Lagin lehorraren kantitate jakin bat hartu zen, ¹³C-rekin markatutako PCDD/F eta dl-PCBen patrioiak gehitu ziren (analitoak diluzio isotopiko bidez kuantifikatzeko) eta 24 orduz Soxhlet bidez erauzi zen, toluenoarekin. Estraktua lurrungailuan kontzentratu zen eta hexano bihurtu zen garbiketa-eta zatikapen-faseetarako.

b) Estraktuaren garbiketa eta zatikapena

Hexanozko estraktua tandemeko zutabe-sistema batean zatikatu zen, geruza anitzeko silizezko zutabe batez eta oinarritzko aluminazko zutabe batez osatua, grabitatez eluzidatuz. Analitoak bi zatitan zatikatu ziren, hexano-nahasketan: diklorometanoa proportzio desberdinetan; lehenengoan, polartasun txikiagokoa, dl-PCBak berreskuratu ziren; polarrean, berriz, PCDD/Fak berreskuratu ziren. Azken zati hori berriro kontzentratu zen karbonozko-zutabe batean garbiketa gehigarri bat egiteko, PCDD/Fak toluenoan eluzidatuz.

c) Bereizmen handiko masa-espektrometriari (GC-HRMS) akoplatutako gasen kromatografia bidezko analisia

Lortutako bi zatiak birkontzentratu egin ziren, lehenengo lurrungailuan kasu bakoitzari zegokion estraktua bide koniko batera eramateko, eta ondoren, lehortu egin zen N₂ korrante baten azpian. Azkenik, ¹³C-z markatutako patroiak gehitu ziren, nonanoan, erauzketaren aurretik gehitutako patroien berreskurapena ebaluatzeko.

Estraktuak GC-HRMS bidez aztertu ziren, kalibrazio-zuzen egokiak erabiliz eta eskatutako baldintza analitikoak betetzeko baldintza kromatografiko eta espektrometrikoko egokietan. Kuantifikazioa diluzio isotopikoaren metodoaren arabera egin zen.

3.4. Analisi estatistikoa

Analisi estatistikoak R pakete estatistikoaren bidez egin ziren.

Lehenik eta behin, PCDD/F eta dl-PCBen datuen deskribapena egin da lurzoru-, esne- eta arrautza-lagin guztietan. Estatistika deskribatzaileen artean, PCDD/F eta dl-PCB kide bakoitzerako eta baturarako balio maximoa, minimoa, batezbesteko aritmetikoa eta batezbesteko geometrikoa % 95eko konfiantza-tartearekin (%95KT), eta pertzentilak (P5, P95) erabili dira. Gainera, PCDD/F eta dl-PCBren balioak detekzio-mugatik (< LOD) behera izan zituzten esne-, arrautza- eta lurzoru-laginen kopurua (N) eta ehunekoa (%) gehitu dira. LODaren azpitik PCDD/F eta dl-PCB mailak aurkeztu dituzten laginei "goiko muga" edo *upperbound* balioa esleitu zaie, gehien erabiltzen den prozedura baita eta ahalik eta baliorik altuenak modu kontserbadorean adierazten baititu.

Halaber, legediak ezarritako kutsatzaileen kontzentrazioak gainditzen diren lagin kopurua kalkulatu da. 1259/2011 Errege Dekretuak ezarritako muga esne- eta arrautza-laginen kasuan, eta 9/2005 Errege Dekretuak eta Alemaniako gobernuaren "Federal Soil Protection and Contaminated Sites Ordinance (BBodSchV)" ordenantzak ezarritako mugak lurzoru-laginen kasuan.

Ondoren, esne-, arrautza- eta lurzoru-laginen PCDD/F eta dl-PCB kontzentrazioen batezbestekoak konparatu dira GIGEBIaren eraginpeko eremuaren eta kontrol-eremuaren artean. Alde batetik, kide bakoitzaren estatistiko deskribatzaileak konparatu dira (balio minimoa, maximoa, batezbesteko aritmetikoa eta batezbesteko geometrikoa). Bestalde, dioxinen eta furanoen kide bakoitzak PCDD/F baturari TEQ unitateetan egindako ekarpenak ehunekoetan alderatu dira, baita dl-PCB kide bakoitzak dl-PCB baturari TEQ unitateetan egindako ekarpenak.

Azkenik, laginketa-urteak (2019, 2021, 2022 eta 2023) eta laginketa-eremuak (eraginpekoa eta kontrola) esne-, arrautza- eta lurzoru-laginetan PCDD/F, dl-PCB eta dioxina motako konposatu guztien baturen kontzentrazioan duten eragina ebaluatzeko, eredu lineal orokortuak (GLM) erabili dira.

Emaitza guztiak Osasunaren Mundu Erakundeak 2005ean adierazitako baliokidetasun toxikoaren balioetan edo TEQetan adierazi dira, eta nazioarteko TEQetan (I-TEQ) lurzoruko PCBetan. TEQak kalkulatzeko modua xehetasunez azaltzen da alde aurretik txosten honetan, "Baliokidetasun toxikokoaren faktoreak (TEF) eta baliokidetasun toxikoaren balioak (TEQ)" sarrerako atalean.

4. EMAITZAK

Jarraian, 2021-2023 aldian jasotako 153 laginen (55 esne-lagin, 50 arrautza-lagin eta 48 lurzoru-lagin) analisi deskriptiboak aurkezten dira. Lau laginek, bi esne-lagin eta bi arrautza-lagin, gainerako laginek baino dl-PCB maila askoz handiagoak izan zituzten. Lagin hauek balio atipikoak dira eta emaitzen analisiak desitxuratu zitzaizkiren, ondorioz, ez dira analisisetan sartu (4. Taula).

Esnearen kasuan, bi laginak ekoizle berarekin ziren, eta 2021ean eta 2022an GIGEBI martxan jarri ondoren jaso ziren, eta ez zegoen laginik GIGEBI martxan jarri aurretik. Ekoizlearekin harremanetan jarri eta emaitzen berri eman zitzaion. Ikerketaren arabera, ustategian kutsadura-iturri lokal bat zegoen material kutsatuak isurtzeko jarduera espezifiko baten ondorioz, eta litekeena da hori izatea esnea kutsatzeko arrazoia. Hemen eskura daiteke lagin horiei buruz idatzitako txostena: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/documents/3767975/3808818/DIOXINAS+EN+ALIMENTOS+Y+SU+ELO+%28BIODONOSTIA%29+22.10.10.+Breve+informe.pdf/9e6d22dd-e767-4539-7bea-e5e7ff3b5c23?t=1669804154915>)

Bi arrautza-laginak ekoizle beretik jaso ziren bi urtez jarraian (2022 eta 2023), eta horiek ere dl-PCB maila altuak zituzten. Aurreko kasuan bezala, ekoizlearekin harremanetan jarri eta emaitzen berri eman zitzaion. Kasu horretan, 2021ean jasotako lagin bat bazegoen, dl-PCB maila txikia zuena, eta horrek adierazten du igoera ondoren gertatu zela. Ekoizlearekin harremanetan jarri ondoren, hark adierazi zuen oiloak 2021eko berberak zirela. Etxeko hegaztiak egunero 11 eta 30 g lur artean irensten dutela kontuan hartuta, lurzorua oiloen dietaren % 8 da. Beraz, kasu honetan, oiloek 2023an gutxienez 3 urte zituztenez, lurzoruan dauden PCBen biometaketa bat

gertatu ahal izan da denboran zehar, Piskorska-Pliszczynska et al. (2014)-ek ondorioztatu zuten bezala.

4. Taula. 1259/2011 Errege Dekretuak araututako muga gainditzen duten laginak.

ESNEA					
ID	Eremua	Urtea	PCDD/F (pg WHO-TEQ/g gantz)	DL-PCB (pg WHO-TEQ/g gantz)	PCDD/F+DL-PCB (pg WHO-TEQ/g gantz)
ZE025	Eraginpekoa	2021	0.46±0.11	12.80±2.20	13.30±2.30
		2022	0.69±0.17	8.10±1.40	8.80±1.50
ARRAUTZAK					
ID	Eremua	Urtea	PCDD/F (pg WHO-TEQ/g gantz)	DL-PCB (pg WHO-TEQ/g gantz)	PCDD/F+DL-PCB (pg WHO-TEQ/g gantz)
ZA014	Eraginpekoa	2022	0.90±0.22	7.20±1.20	8.10±1.40
